

KONSTITUZIOARI BURUZ



ZA
BAI
TZEN

DOKUMEN
ZENTROA

TXT 10128

Konstituzioak danok ukitzen gaituela eta bereziki langileriari, duda ezinezkoa da. LABek euskal sindikatu langilea denezkero, bere jarrera euskal langileriari azaltzeko beharra du. Lehen esan dugu ukituak garela gai hontatik, eskubide sindikal, ekonomi molde, eredu ekonomikoa, estatuaren egitura e.a. . . dagozkion oinarri garrantzitsuenak (lege eta joku araua) gauzatzen bait ditu konstituzio honek, arazo hauen aurrean ezin genezake ixil, ezin geldi egon genezake.

Euskal eta sindikatu bezala zuzenago dagozkigun alorrak ikuspegi orokor batez azterturik klase sindikalgintzari, euskal sindikalgintzari bereziki, langileriaren eskubide eta grinei zuzendua dagoen eraso bat dela esan genezake.

Euskadiko langileriaren eskubide eta grinei zuzendutako eraso garbi bat dugu, sozialismoa gaitzesten duelako, eredu ekonomikotzat artzen duelako merkatu ekonomia eta kapitalismoa era legal bakartzat duelako. Beste alor batean (bainan lehengoari atxikirik), autodeterminazioaren eskubideari uko egiten dio, langileriak eta euskal herriak bere etorkizun nazionala burutzeko duen eskubidea gaitzesten du.

Klase sindikalismoarentzat eraso bat da, manifestapen, bilera, greba eta elkarte eskubideak mugatzen bait ditu.

Euskal sindikalgintzari batipat eraso berezi bat zuzentzen dio, klase sindikalgintzari muga ertsiak ezarri ondoren ez bait du konstituzio honek Euskadi textuinguru berezi eta partikularra euskal langileriarentzat onartzen. Alde batetik lan gaiei dagokionez estatuak duen konpetentzia hutsa aipatzen du, euskal sindikalgintza ito eta urtu nahian, estatu mailan estabaidatuko bait dira gai garrantzitsuenak. Beste aldetik Nafarroa euskal herriko beste lurraldeetatik aldenaraztean euskal langileriaren batasuna oztopatzeko saiakera bat da.

Hauetako arrazoi boteretsuenak LABek hartu duen erabakia, aste batzuk barru referendun aurkeztua izango zaigun konstituzio hau gaitzetzeko. LAB saiatuko da bai langileria, bai herri osoak baieztatu dezan bere jarrera garbi eta guztizko EZ batez konstituzio honi. Langileri eta herri osoari dei egiten diogu, beren interesak defenda ditzan EZ esanez Konstituzio honi.

EZ, EZ, EZ, KONSITUZIO HONI EZ!!!